

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxeba Amutxastegi Aranzabal

*Andoain,
Gipuzkoa
(1927-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Andoaingo Zumea kalean jaio zen eta hiru seme-alabatan gazteena zen bera. Ama Villabonakoa zuen eta Andoainen neskame zegoela ezagutu zuen bere aitak (andoaindarra zen azken hau). Aita bizargina zuen eta amak ere, ezkondu eta gero, ile apaintzaile ikasi zuen elkarrekin lanean aritzeko. Etxean bertan ireki zuten ile-apaindegi edo bizartegia eta gasolindegia ere bazuten etxe aurrean. Gerra Andoainera iritsi zenean, gasolindegia eta bizartegia kendu zizkieten eta aitak ihesi egin zuen Bizkai aldera. Itzultzea erabaki zuenean, preso hartu zuten eta aurrena Andoaingo kartzelan eta gero Ondarretan eduki zuten. Bera joaten zen jatekoa eramatera baina 32 hilabete eta gero aske utzi zuten aita. Arrantzan asko aritzen zen txikitan eta afizioarekin jarraitu du azken urteetan ere. Andoainen bizi izan da beti eta bere emaztea Andoainera txikitan etorri zen Errioxako emakumea da.

Zintak

AND-067

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-12-01
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Alkorta Agirrezabala, Jon

AND-071

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-12-02
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Gurasoak nongoak ziren

- **Erref:** AND-067/002
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:03:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Aita Andoaingoa zuen, eta ama Villabonakoa. Aitaren aita Bergaratik etorri zen Andoaina lanera Subijana lantegira. Amaren aita iturgina zen Villabonan. Ama neskame ibili zen ezkondu zen arte: Andoaingo Fondanean lan egin zuen bitartean hango giroa nolakoa zen azaltzen du.

2. Fondaneko anekdotak

- **Erref:** AND-067/003
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:03:29. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Fondanean izandako anekdotak kontatzen ditu: Orbegozok ilea xeblebre moztu zueneko eta emakumez mozorrotu zenekoa. Ohitura handia zegoen egunero parrandan ateratzeko; eta, norbait ateratzen ez zenean, zer egiten zuten kontatzen du.

3. Bizartegiaren garrantzia familiako ekonomian

- **Erref:** AND-067/004
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:10:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Familian bizartegia zeukaten: aita bizargina zen; eta amak, ezkondu zenean, ile-apaintzaile izateko ikasi zuen. Gerran, aita kartzelan sartu zuten eta heriotza-zigorra izan zuen; garai hartan amaren ile-apaindegiko lanari esker atera zen familia aurrera. Aitak Donostian ikasi zuen lanbidea, eta hara joateko bizikleta hartzen zuen.

4. Bizartegiaren azpian taberna

- **Erref:** AND-067/005
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:10:23. **Bukatu:** 00:12:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Joxeba bere familiaren bizartegian egoten zen askotan. Bizartegiaren azpian taberna zegoen, eta aita hara jaisten zen maiz; bitarte horretan bezeroren bat etortzen bazen, Joxebak hankarekin jotzen zuen lurra eta aita berehala igotzen zen. Aitak laguntzaile bat zuen bizartegian.

5. Bizartegiko tresnak eta ohiturak

- **Erref:** AND-067/006
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:12:11. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Bizartegiko lanari buruz hitz egiten du: bizarra eta ilea moztzen zuen han jendeak. Labana eta xaboia erabiltzen zituzten bizarra mozteko; ilea mozteko, guraizeak eta eskuzko makina.</p>

Transkripzioa

- Eta nola izaten zan barberiko lana,jaboia ematea zan?
- Ba, e.
- Aurrenekua.
- Barberoa eo,jendia ordun ba barberia juten zan ba afeitatzea ta illia moztutzea. Oain illia moztutzea bakarrik juten dia, jeneralen. Baiño ordun, zea, afeitatu ta afeitatu ba nik bakarrik jaboia eman. Bestea labanakin, labanak bazian holakuak, ez dakit ba(da)katen hor. Gero ni labanakin afeitatzen nitzen baiño oain ez. Ta bueno, jaboia ematen nion ta. Jaboia ez zun beratzen, urak beratzen zun, entenditzen dezu? Bizarra; baiño ahaztu iten zan, bustitzen giñun baiño ba ta jaboia eman ta tak! Etortzen zian aitta ta bestia, ra!, moztutzen zun; gero, illia arreglatzen zuen eo illia moztutzen zuen. Ta...
- Labana hoik oso zorrotzak izan behar zuen?
- Ba eakutsiko dizut gero, uste det hor dakatela bat. Ez dakit, bota nun. Oain dala gutxi bota det e, bota balin badet. Zea, larrubai ematen zion pasta bat, ta pasta harek zorrotzu ez baiño bai, leundu baiño oso fiñak zian zeak, beste hoja, hojak baiño, igualtzu.
- Eta illia mozteko berriz, ze?
- Guaizek eta makina eskuz, oain elektrikoak die baiño eskuz, hola. Joe ta nekatu iten zan, ta ni bizkorra izandu nitzan hortan, bizkorra izan nitzan.

6. Bizartegiko lanerako bokazio gutxi

- **Erref:** AND-067/007

- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:16:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bizartegian Joxeba oso nekatuta egoten zen fabrikan ere lan egiten baitzuen; batzuetan erdi mozkor joaten zen etxera lanean basoerdiak hartuta, ez zegoen alkohola edatera ohituta eta. Azkenean, bizartegiko lana uztea erabaki zuen.

7. Bizartegiko ordutegia

- **Erref:** AND-067/008
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:16:38. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bizartegiko ordutegiari buruz hitz egiten du. Arratsaldeko 7etan beti izaten zen afaltzeko tartea.

8. Andoainen 4.000 biztanle inguru zireneko bizartegiak

- **Erref:** AND-067/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:19:41. **Bukatu:** 00:21:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

<p>Bizartegi ugari zeuden lehen Andoainen: non zeuden azaltzen du. Garai hartan 4.000 biztanle inguru bizi zen Andoainen.</p>

Transkripzioa

- Gu hamalau, etxia hamalau. Haik hamasei ta hurrungoa hemezortzi tikigua; Martin Ugalde aitzera badakazu?
- Bai.
- Han, etxi hartan bizi zian beste barberua, semiakin.
- Zenbat?
- Hiru. Ta geroxego, geroxego; bai, urte batzuk geroxego gaztegua zan ta zea hor taberna Txuri-beltz eo ez, hemen e, hemen, Txuri-beltz. Bueno hemen, kali hontan, "calle Mayor" eo hau "calle Mayor" da zea, kamiyokua.
- Bai.
- Ta hor ataiya bado.
- Bai.
- Ba bi ate gerogo, beste barberiya jarri zun, Ostape.
- Bueno.

- Baserritarak, bai. Bestia, beste barberiya zean, Basteron, Basteron; oan etxe berriya nola iten ai dia? Hor. Ta beste barberiya, Elixondonian. Ta beste barberiya Kale Txikin. Badia, e!

- Bai.

- Bat, bi, hiru. Hiru, lau, bost, sei. Sei nik dakixkitela.

- Bai.

- Ba asko zian.

- Bai, joe!

- Garai hartan Andoain?

- Lau milla persona eo holakon bat, lau milla ta bostehun eo.

9. Bizartegiaren aurrean gasolindegia zeukaten

- **Erref:** AND-067/012
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:21:53. **Bukatu:** 00:24:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Amaren ile-apaindegia aitaren bizartegiaren ondoan zegoen. Bizartegiaren aurrean gasolindegia ere bazeukaten, baina gerran kendu egin zieten negozio hura. Gasolina botatzeko makina nolakoa zen aipatzen du.

10. Ezkiogako Birjinaren mirariak gasolindegia mesede egin zionekoa

- **Erref:** AND-067/013
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:24:07. **Bukatu:** 00:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Auto gutxi ziren garaian, miraria gertatu zen Ezkiogan. Hara joateko bidean, Joxebaren familiaren gasolindegitik pasatzen ziren autoak. Andoainen bi gasolindegi zeuden.

Transkripzioa

- Ta garai hartan automobillak zuk esan dezuna gutxi izango zian?

- Ba, bai baiño baiño han tenporada, gu katolikuak giñan, apostolikuak gea baiño ño!, bastante... Ni oain behintzat bastante atzeatuba, eta gure aitta ere bastante zea zan, liberala eo. Bueno, azaldu zan milagrua, "milagro de la virgen de Ezkioga". Bastante e, bastante dakat. Eta ordun, hua bixitatzea hemendik asko juten zian Donostikuak eta toki guztitakuak, prantsesak'e bai eta hortik nola pasatzen zian, autobusak eta puñetak hor gelditzen zien.

- Hara!

- Tra-ta-ta, gasolina. Beste gasolinera zeon, ba Eroski nola oan, hor zeon

beste gasolinera, hua zan, hua, ze izena du? Joe, ahaztu zat; Bueno, beste gasolinera.

-Bi ahal zian Andoainen?

- Bai, bi zian; guria ta zea, ta gero kendu in ziguen.

11. Gerra hasi, aitag alde egin eta gasolindegia galdu

- **Erref:** AND-067/014
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:25:34. **Bukatu:** 00:27:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra etorri zenean, aitag alde egin zuen; familia Olazabalgo baserrira joan zen. Andoaingo zubia bota egin zuten dinamitarekin eta orduko oroitzapenak kontatzen ditu. Beraien gasolindegiko gasolina kendu eta beste gasolindegikoei eman zieten.

12. Gerra garaian emakumeei jarritako zigorrak

- **Erref:** AND-067/015
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:27:48. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Ama ia fusilatu egin zuten. Emakumeei ilea mozten zieten umiliatzeko. Emakume haien erruak zein ziren aipatzen du. Amari ez zioten ilea moztu, baina nahi izan zuten.

13. Bizartegia kendu eta kiosko/posta bihurtu

- **Erref:** AND-067/016
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:35:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Bizartegia itxi egin zieten gerra garaian. Horren ordezt, egunkariak saltzeko eta armadaren gutunak jasotzeko erabiltzen zuten lokala, eta hilabete bat egon zen horrela. Bizartegia kendu zieteneko eguna gogoratzen du.

14. Aita Andoaina itzultzera atrebitu eta kartzelan bukatu zuenekoa

- **Erref:** AND-067/017
- **Iraupena:** 0:06:25. **Hasi:** 00:35:56. **Bukatu:** 00:42:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

1937-38 inguruan, aita Andoaina itzuli zen. Orduan bodegan hasi zen lanean, eta ama ere sukaldari egon zen han. Gerran espioia zegoen Andoainen, eta harekin aita tratua izan zuen, nahiz eta amak kontuz ibiltzeko esaten zion. Azkenean, aita udaletxe azpiko kartzelara eraman zuten guardia zibilek: hiru hilabete egin zituen kartzela hartan, eta gerora 29 hilabeterako eraman zuten Ondarretako kartzelara. Bi epaiketa izan zituen denbora hartan.

15. Bigarren epaiketan jakin zuen zergatik epaitzen zuten

- **Erref:** AND-067/018
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:42:21. **Bukatu:** 00:44:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Aita kartzelan sartu zuten, eta bigarren epaiketa egin ziotenean jakin zuten zergatik eta nork salatu zuen.

Transkripzioa

- Ta kartzelan sartu zeatik in zuen?

- Joe, ba bai, esango dizut. Aurrenekoan ez genikin baiño biarreanean bai. Sartu zuten zazpi, eta gure etxeko goiko bizilaun bat zan maixua. Ta zakan seme bat Legiyuan (Legión) ta beste semia fraile izanduba zean zakan, militarretan, alfereza, "como alferéz". Ta hua're hari're denuntziya zun "maestro sin dios". Republikak eman zun ordena kentzeko gurutziak eskolakuak ta harek obeditu zun. Baiño ez, baliteke igual ez zan ezer baiño republikanuan... Ta bueno, sartu zuten kartzelan. Juiziyua atera ta hari're hoita hamar urte. Ta etorri zan fraile hoi, semia ta hasi zan maitzen. Joe, ta "renovación de juicio" kontsegittu zun. Biarrenian, "la renovación" nahita nahi ez, denak jun zian, zeak, denunziantiak jun zian ta ordun jakin giñun zein zian denunzian, tiak, ze ze denuntzi zian eta horreatikan. Fraile horrek, gure bizilaunak, harek zakan "denuncia de maestro sin Dios". Ta horreatikan hoita hamar urte eman zituen e. Gure aittak, berriz, zakan "por reuniones clandestinas en la barbería". Ta horreatikan eman ziyoen hogeita hamar urte. Ta jakin giñun zein zian. Bizilaun horrek, harek maitu zunak zakan ba... Agirre zan, Subijanan lanian iten zun, baiño karlista, denuntziya.

16. Aita salatu zuena oso gertukoa zen

- **Erref:** AND-067/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:47:08. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aita bilera klandestinoak egiteagatik eraman zuten kartzelara. Salataria aitaren aitajaunaren semea izan zen. Lehen herritarren artean lagunagoak ziren.</p>

Transkripzioa

- Nere aittak zun denuntziya, "si esto..., reuniones clandestinas". Ta zein zan denuntziantia? Nere aittan aittajauna, haren semiak. Nere aittan aittajaunak, haren semiak denuntziatu zun.

- Familikua zan?

- Ez, ez, ez, ez. Aittajauna ordun ez zan. Hi, horreatikan esaten dizut, krixton kanbiyua eman deu bizimodun e zea, denak launak zian, zea amistadia eo: "Hi familiya izandu dit eta nahi al dek izan aittajauna?". "Bai!". Aittajauna.

- Familikua ez baiño launa.

- Nere aitonan launa. Ta zer jarriko diogu, ta Estanix. Hola, hola zian gauzak ordun.

- Ez zan arrazoi haundirik behar ordun batek bestia... Ezin ikusiya eo zer zan?

- E... gaztia. Nere aittajaunan semia gaztia; ta ze? Zea ordun in zuen zeak falangista ta ez dakit ze ta badakit zer ta. Denda aurrian ta semiak denak atea zian ba karlistak. Enkanbio, gero haren arreba ezkondu zan nazionalista batekin. Ta tira, hola zian gauzak.

17. Fusilatu zituztenen istorio tristeak

- **Erref:** AND-067/021
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:51:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Soldaduak hilabetez eduki zituzten etxean, baina bitarte horretan ez zuten alde egiterik pentsatu. Andoainen fusilatu zituzten gizon batzuei buruz hitz egiten du: ez zuten errurik eta horregatik beldurrik ere ez; baina horrek ez zien bizia salbatu.

18. Umea izanda ere, gerran sufritutakoa

- **Erref:** AND-067/022
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:51:42. **Bukatu:** 00:53:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Nahiz eta gerra garaian umea izan, asko sufritu zuen Joxebak. 11 urte zituztela, komunio handia egin zutenean, Joxe izena hartu behar zuela esan zioten.

Transkripzioa

- Ta gaiñeakoan Joxeba zuek umiak ziñaten?
- Bueno guk asko sufritu giñun, nahiz umia izan. Nik in nitun zortzi urte-beatzi hoik sartu zianen, zortzi urte t'erdí eo hola. Eta Bilbo hartu zuenian ta ordun ordun ordun asko sufritu giñun guk. Ba komuniyo handiya itean iteakuan ordun'e zea gaztiak giñen. umiak giñen baiño dios!, dena, hoi dena sartzen zian burun. Nei Don Kostantino, ordun zan Don Costantino Laskibar.
- Apaiza?
- Apaiza hemen. Ta komuniyoa hamaika urtekin iten giñun. Zazpikin ttikiya ta haundikin haundiya hamaikakin. Jun giñan zeatik, ta aber, ez naiz ahaztuko sakristin sarreran atian onduan Don Kostantino apuntatzen, zeñek in bihar giñun komuniyoa. "A ver, ¿Cómo se llama, cómo se llama?" "Joxeba Amutxastegi Aranzabal" "¿Cómo, cómo?" "Joxeba Amutxastegi Aranzabal" "¿Cómo, cómo?" "Joxeba Amutxastegi...". Joe, momentutik momentua boz altugua, ez al dik ba aitzen honek? "¡Esos cuentos de Joxeba se terminaron. De aquí adelante te llamarás Joxe!". Hamaika urtekin. Hoik barrenen gelditzen dia, batzuidi ez zaio inportik baiño nei ordun ordun'e bai nei inporta zizaten. Hoi, Don Kostantino.

19. Bederatzi urte zituela kartzelara eraman zutenekoa

- **Erref:** AND-067/023
- **Iraupena:** 0:07:12. **Hasi:** 00:53:33. **Bukatu:** 01:00:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bederatzi urte zituela, ordu eta erdi kartzelan eman zuen Joxebak. Delitua? UHP idatzi izana. Kartzelan sartu zuteneko inpresioak gogoan ditu oraindik: kirats izugarria zegoen, beste bi lagunekin batera egon zen, inoiz baino gehiago errezatu zuen orduan... Kartzelan zeudela jakin zuenean amak, alkatearengana joan zen. Azkenean, libre utzi zituzten.

20. Umetako jolasak

- **Erref:** AND-067/024
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:03:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan aisialdian zer jolasetan ibiltzen ziren aipatzen du: kanikatan, zibarekin, korrika albiraka... Nola moldatzen ziren kontatzen du. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean zenbaitetan.

21. Karburo-potoarekin jolasean

- **Erref:** AND-067/025
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:03:46. **Bukatu:** 01:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Karburo-potoarekin jolasean aritzen ziren eta tiroa egitea lortzen zuten. Karburua ekartzeko nola-hala moldatzen ziren.

Transkripzioa

- Ta gero karburoakin'e bai. Potua, zuk ez dezu aitu, ez ziñun aittuko beiñ'e, zuloa iten zaio ttiki bat poto bati, tapa bat. Eta zuloa iten dezu lurrian, hura sartu, karburua "karburo" zea mineruak eta nola ibiltzen zuen, holako pixka bat bota, tapatu zea ta beste laun batek eo zuk makilla batekin suba, jo ta suba. Jarri han ta iaaa! ateatzen zan baiño baiño zea e, kriston tirua iten zun gaiñez. [...], lapurreta in giñun. Lapurreta in giñun e hor tunela do, treneko tunela, ta eun batian, ñooo, ez dakit norbaitek billa, ikusiko zun ta: "Zea ziyok karburua potu haundiya zeok, me kauen". Jun giñan, lau eo bost jun giñan. Joe, usaiya earra eukiko zun harek e. Kolkuan ta galtzetan ta sartuta ta, pitiliñian ere bai bai zea sartu, karburua hola. Nik ez dakit zenbat kilo ekarri nitun etxea. Ta gure etxean, ezkatzian zea giñun, ba zulo bat baiño atiakin. Ganbara deitzen genion baiño, ganbara goikua izaten da eta gu behian giñun, sarreran. Han eukitzen giñun. Jo, puxkatu, puxkatu ta bueno oain atzekaldea, errekaa, han ibiltzen giñan tiroka.

22. Kaletik ateratzeko, dotore jantzi behar

- **Erref:** AND-067/026
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:05:44. **Bukatu:** 01:07:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Beraiek bizi ziren kaletik beste kale batera joatean, arropa dotoreagoa janzten zuten. Karburoarekin jolasean zebilen batean, arropa guztia zikindu zitzaion eta etxera joan behar izan zuen aldatzera, konfesatzera baitzihoan.

Transkripzioa

- Komuniyoa, konfesatzea gure etxian libertadia banun baiño: "Joxeba, konfesatzea jun bihar dek", Ta bueno juten giñan; kale batetik bestean kalea, beste kalea "ni hablar". Gure kalia bakarrik ibiltzen giñan. Bestea

jun bihar giñun, hobeto jantzita. Eun batian, ni goatzen naiz, alkandora zuriyakin, manga motxak. Mekauen... Baiño in in bihar guria ta jun naiz karburuakin ta ez dakit zenbatek, lau jungo giñen, mekaue. Potuak danba! Bota deu ta bigarrenian, jakiña, ez zan lurra; zan errekako lurra, busti-bustiya. Bunba! Mekauen!, dedio! Dena zikin-zikiña, labaderua onduan giñun, okerrago. Hartu ura ta ia!-ia!, dena beltz-beltza. Bueno hau hola ez zeok juteik konfesatzea. Etxea, aldatu ta konfesatzea. Ba ama errieta, errieta. Bai baiño bastante, ez, bastante liberalak zian nere zeak, gurasuak liberalak zian. Bestiak, bestiak baiño liberalagua. Nik ez niyon aitai behiñ'e esan "beorri". Nere launak bazian batzuk, "beorri" esaten ziyenak aittai.

23. Auzoen arteko gerrak

- **Erref:** AND-067/028
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:11:20. **Bukatu:** 01:14:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Auzokoen arteko gerrak egiten zituztenean, batzuk besteen aurka elkartzen ziren. Tiragoma ezagutu zutenekoa kontatzen du. Trenbideko harriak botatzen zituzten tiragomarekin, eta behin mutil bati eman zioten; bere onera etorri arte, ezkutatu egin zuten.

24. Auzoen fama eta aliantzak

- **Erref:** AND-067/029
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:14:36. **Bukatu:** 01:16:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Zumea auzokoek baketsu-fama zeukaten; Etxeberrietakoek, ordea, bihurri-fama. Basterokoak Zumeakoekin elkartzen ziren Etxeberrietakoen kontra.

Transkripzioa

- Aizu ta auzuan tartian Zumeatarrak ze fama zuen, zuek ze fama zenuen?
- Hoi fama, fama ez, gu bastante zeak giñan. Txarrenak zea zian, beno, txarrenak, aber, bihurrienak Etxeberrietakoak zian; bai, hoi zian.
- Zumeakoak ze fama ziñuen?
- Guk pake, pakeosua. Fubolian ta..., fubolian ibiltzen giñan kalia ta askotan irabazte geniyon zeai etxeberritarrei. Ta haik kanpo futbola zuen. Ta zea esan nahi dizut, ba gukin nahigo zuen ibili Basterokuak Etxeberritarrekin baiño. Osea, gerran haik etortzen zien gure alde.
- Basterokuak ze fama zuen haik?
- Ez, normal. Ba ez, ez. Bazian bat eo bi bazian zea, baiño ez ez. Haik motelaguak zian.

- Haiek Kale Txikikoakin ta?
- A ez, ez giñun guk, zea, tratu..., ez. Guk urte asko zea ez giñun ezautzen, zea, Kale Txikiko mutillak.
- Ez ziñaten harea azaldu?
- Ez, ez da azaldu. Guk mezeta're zea juten giñan, Santa Krutzea, ez juteagatik harea. Gero bai baiño ba hamar-hamaika urtekin ta hola joaten giñan zea, hemen goiko plaza.
- Hoi da.

25. Eskola publikoko maisuaren "objektibotasuna"

- **Erref:** AND-067/031
- **Iraupena:** 0:05:57. **Hasi:** 01:16:51. **Bukatu:** 01:22:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

La Sallen ikasteko ordaindu egin behar izaten zen, eta hartarako dirurik ez zegoenez, eskola publikora joan zen ikastera Joxeba. Eskola hartan maisuak gorrotoa hartu zien Joxebari eta bere lehengusuari: zer eginarazten zieten aipatzen du.

26. Sagarrak ostu eta loinak harrapatu

- **Erref:** AND-067/033
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:22:56. **Bukatu:** 01:25:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Aisialdian, mendira joaten zen Etxeberrietakoekin sagarrak ostera. Estoldaren ondoan, loinak harrapatu eta mojari eman zizkionekoa kontatzen du. Loinak nola harrapatzen zituen azaltzen du.

27. Ogia eta esnea ez zitzaien falta izan

- **Erref:** AND-067/034
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 01:25:21. **Bukatu:** 01:28:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Ogi gutxi zen garaian, Joxebaren etxean ez zen falta izan ogirik. 10 urte inguru zituela, egunero marmita hartuta joaten zen esnea ekartzera: 10-11 litro ekartzen zituen. Ekarritako esnea hiru familiaren artean banatzen zuten.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com